

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko otsailaren 29an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HERMUBA HERNANIKO MUSIKA BANDA ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko azaroaren 24an, "Hermuba" Hernani Musika Bandarekin hitzarmena onartu zuen.

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, hau da, 2022ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31 artekoa, beste lau urtez luzagarria.

Hernaniko Udalak urtero 96.000 €-ko dirulaguntza emango dio Hermuba Hernaniko Musika Bandari, 2024ko aurrekontuan Dirulaguntza izendunen atalean jasotakoa: Partida: 02.481.03.334.00. Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran.

2023ko dirulaguntzaren zuriketa garaiz eta dagokion epean aurkeztu ditu memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen froga-agiriak.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2024ko otsailaren 29ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da: **AHO BATEZ**

- 1- 2023ko dirulaguntza izendunaren zuriketa **onartzea**
- 2- 2024rako **96.000 €-ko dirulaguntza izenduna** onartzea eta lau zatitan ordainketa egitea: otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran 02.481.03.334.00 partidatik.
- 3- **1. ordainketa 24.000 €** egitea.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko otsailaren 29an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKUd2484ace-960a-4b17-b08a-25d0063e7e0d**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>